

BALIABIDEAK

- Baliabide intelektualak:

Guk behar dugun eskulan espezializatua, proiektua gauzatzeko orduan **informatika eta elektronika teknikariak** izango lirateke, aplikazioa garatuko lutekenak. Hortaz ez genuke arazorik edukiko hemen inguruan aurkitu ditzazkegu eta.

Gure enpresaren **kudeaketa gure esku** egongo liteke, jarduera honetan espezializatuak garelako. Beste teknologia-enpresa batekin egindako akordioaren bidez, honek **sensoreak ekoiziko** lituzke, eta guk kokatuko genituzke hiriko parkinetan. Guk sortutako aplikazioa izango denez, **aplikazioa patentatuko** dugu.

- Baliabide fisikoak:

Hasiera batean, gure lantaldeko **kide batek** libre duen **pisu batean** kokatuko gara, hau da bulego fisiko bat izango dugu.

Sensoreak behar ditugu, eta sensore hauek espezializatutako enpresa batek

Behin mozkinak irabazi eta gero, gure **helburua lokal bat alokatzea** izango liteke, eta geroz eta enpresa gehiago handitu, beste egoitza batzuk alokatzen eta irekitzen hasiko gintezke.



- **Giza-baliabideak:**

Hasiera batean, enpresa berria eta txikia denez, gu lauak izango gara langileak. Bakoitzak bere postua eta ardurak izango ditu. Bulegoan guztiak egongo gara presente, lanean.

Denon artean, deiak eta mezuak (gmailak edo SMS-ak) erantzungo ditugu. Udaletxearekin, beste enpresekin, bezeroekin eta beste edozeinekin elkartzeaz arduratuko gara, beharrezkoak diren bilerak antolatu eta haietara joatearen arduradura hartuko dugu. Azkenik, aplikazioa kontrolatzea eta sortarazi daitezken arazoak konponduko ditugu.

Enpresa haztean, langile berriak kontratatzea pentsatu dugu, egoerak eskatzen dituen ezaugarrien arabekoak. Noski, txipak garraiatzeko langileak beharko ditugu, eta hauek teknika eta informatika ikasketak izan beharko dituzte.



- **Finantza-baliabideak:** Hasieran, bakoitzak 4000 euro jarriko ditugu (bakoitzak 1000 euro), eta gainerakoa **Sensores enpresak**, kapitalaren %20a jarriko du. Gainera, Udaletxeak 10.000 euro-ko diru-laguntza emago digu. Enpresa haztean, inbertsoreak lortuko ditugu gure proiektuan inbertitzeko eta zabaltzen laguntzeko.